

ZABARRE FESTA

Badator Zabarre itsasotik, festa! badator herrira herriko semea, festa! Ospa dezagun, kanta eta dantza, mila borrokatan sendotutako lezoararren itzulera.

Zer da Zabarre festa? Zabarre festa herriko gazteok Zabarre lezoar itsaslapur adoretsuaren



itzulera ospatzeko egin asmo dugun ekitaldia da. Zabarre, hala dio kondairak, Santakruztetan herrira itzultzen da festak herriko lagunekin ospatzera eta bere borrokatan irabazitako aberastasunak herrikoen artean banatzera.

Aurten Lezoko gazteok itsasoz etorriko den Zabarre Lezoko kaian hartuko dugu musikaren alaitasuna lagun eta gure festa gogoaren indarraz Kale Nagusian barrena bere etxeraino eramango dugu (badakizue, Zabarre etxeraino). Han itsasoan irabazitako ondasunak herritarren artean banatuko ditu. Zabarre etxetik Markesanera joango gara eta bertan Zabarre adoretsuaren mezua entzun ostean festa eta parranda egingo dugu gure lagunaren etorrera ospatzeko (izango da nahikoa jan eta edana antzina itsasgizonek Lezora itzultzean egin ohi zen moduan).

Jaiak iraun bitartean gurekin izango da Zabarre baina zezensuzkoaren ostean atzera berriro kaiara itzuliko da, beste urte bete baterako agur eginaz, baina orduan ere han izango gara gu; agur esaten itsas ekaitzik gogorrenetan adoretsu izan dadin animoak ematen.

Zabarre festa hau lezoar izaeraren barruan kokatzen dugu; izan nahiaren irrikakultzaturik egiten dugu eta beronen ospakizunari eutsiko diogu Lezo lur azalean den bitartean. Hala nahi dugu eta hala bedi!!

Itsasoa eta mendia
Lezoren harresia
ozen entzun dadila
bizi nahiaren garraisia.

ZABARRE GAZTE TALDEA